

ORKESTRAKO KOADERNOAK

ISSN 2340-7638

 <https://doi.org/10.18543/RTWM2847>

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EKONOMIA ETA GIZARTE DIGITALAK. DESI 2025

LABURPEN EXEKUTIBOA

07/2026 zk.

 <https://doi.org/10.18543/VZUD7445>

Carla Peletier

James Wilson

ORKESTRAKO KOADERNOAK, 07/2026 zk. Laburpen exekutiboa.

ISSN 2340-7638

 Bilduma: <https://doi.org/10.18543/RTWM2847>

 Koadernoak: <https://doi.org/10.18543/FIPW5222>

 Laburpen exekutiboa euskaraz: <https://doi.org/10.18543/VZUD7445>

 Laburpen exekutiboa ingelesez: <https://doi.org/10.18543/HACM9705>

© Carla Peletier, James Wilson

© Lehiakortasunerako Euskal Institutua - Deustu Fundazioa

Orkestrari buruz:

20 urte baino gehiagoko esperientziari eta jakintzari esker, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutua (Deustu Fundazioa) eskualdeko lehiakortasunaren esparruan Europako erreferentziazko ikerketa zentroetako bat da. Orkestraren misioa Euskal Autonomia Erkidegoan ongizate inklusiboa eta jasangarria helburu duen lehiakortasuna bultzatzea da. Horretarako, Institutuak ikerketa eraldatzaileko proiektuak lantzen ditu tokiko eta nazioarteko eragileekin, eta analisi zorrotzak egiten ditu, erabakiak hartzen laguntzeko.

➔ Eskura itzazu gure argitalpen guztiak Orkestraren webgunean: **www.orkestra.deusto.es**

Esker ona

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia eta Gizarte Digitalak. DESI 2025 Txostena Eusko Jaurlaritzaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren mendeko SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren finantzaketari esker egin da.

Eskerrak ematen dizkiogu Eustat-Euskal Estatistika Erakundeari txosten honetan erabili ditugun datuak eskuzabaltasunez emateagatik. Era berean, eskertzen dugu Osakidetzak emandako laguntza eta Espainiako Gobernuako Telekomunikazioen eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzatik (SETELECO) jasotako informazioa, nork bere eskumenen eremuan.

Laburpen exekutiboa

Euskal Autonomia Erkidegoaren digitalizazioa Europako testuinguru estrategikoan

Digitalizazioa ekonomiak eta gizarteak eraldatzen dituen zeharkako fenomeno da, eta lehiakortasunerako, jasangarritasunerako eta ongizaterako funtsezko faktore bihurtu da. Teknologia bere egiteaz harago, eraldaketa digitala tresna estrategikoa da egiturazko erronkei, besteak beste trantsizio ekologikoari, gizarte kohesioari eta industria indartzeari, aurre egiteko.

Testuinguru horretan, Euskadi 2030 Industria Planak eraldaketa digitala EAEko industria politikaren zeharkako palankatzat hartzen du, modu erabakigarrian laguntzen baitu “industria gehiago”, “industria hobea” eta “isuri gutxiago” helburuak lortzen. Ekarpen hori Industria Planaren hiru lehentasun estrategikotan gauzatzen da bereziki: (i) enpresen maila teknologiko berritzailea handitzea; (ii) adimen artifizialaren eta zibersegurtasunaren erabilera bultzatzea eta (iii) azpiegitura fisiko eta digital aurreratuak sustatzea.

Europari dagokionez, ikuspegi hori Hamarkada Digitalaren agendarekin bat dator. Agenda horrek 2030erako helmugak zehazten ditu eraldaketa digitalaren hainbat esparrutan. Ildo horretatik, DESI adierazleen sistema funtsezko tresna da herrialdeen digitalizazio maila ebaluatzeko eta haien bilakaera erlatiboa konparatzeko, lau dimentsioren inguruan:

- Gaitasun digitalak gizartean,
- Azpiegitura digitalak,
- Enpresen eraldaketa digitala eta
- Zerbitzu publikoen digitalizazioa.

Egoera horretan, adimen artifizialaren bilakaera azkarrak eta potentzial eraldatzaileak, zibersegurtasunari lotutako erronka gero eta handiagoekin batera, garrantzi berezia hartu dute eraldaketa digitalak enpresetan dituen eraginaren ikuspegitik.

Nola dago Euskal Autonomia Erkidegoa eraldaketa digitalari dagokionez Europako testuinguruan?

Eraldaketa digitalari begiratuta, Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera globala ona da. Zehazki, aztertutako DESI adierazleen % 80 EB-27ko batezbestekoaren gainetik daude, eta horrek eraldaketa digitalaren askotariko dimentsioetan posizio sendoa erakusten du.

Indargune nagusiak DESIren lau dimentsioetatik hirutan kontzentratzen dira:

- **Azpiegitura digitalak**

Azpiegitura digitalek lurraldeko aktibo nagusia izaten jarraitzen dute. Euskal Autonomia Erkidegoa EB-27ko batezbestekoaren gainetik dago argi eta garbi adierazle guztietan. Gainera, sailkapeneko lehen tokietan dago, Europako estatu kideekin alderatuta, zuntzaren estalduran (4. tokian), Interneten ezarpenean (3. tokian), eta ahalmen oso handiko sareen estalduran (1. tokian). Erronka nagusia 5G haririk gabeko komunikazio mugikorren sarearen hedapena eta kalitatea bizkortzea da.

- **Gaitasun digitalak**

EAEko herritarren gaitasun digitalen bilakaera egonkorra eta sendoa da. Bilakaera horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoa EB-27ko batezbestekoaren gainetik dago aztertutako adierazle guztietan. Hala ere, talentu digital espezializatua sortzeko eta erakartzeko erronkak bere horretan jarraitzen du.

- **Zerbitzu publikoen digitalizazioa**

Aztertutako bi adierazleetan, Euskal Autonomia Erkidegoak portaera ona izaten jarraitzen du. Zehazki, EB-27ko batezbestekoaren gainetik dago administrazio digitalen erabileran, eta lidergo tokietan dago osasun zerbitzu elektronikoetarako sarbidean (5. tokian).

Oro har, DESIren hiru dimentsio horietako emaitzek oinarri sendoa ematen dute lurraldearen eraldaketa digitaleko prozesua bultzatzen jarraitzeko. Euskal Autonomia Erkidegoak lidergoari eusten dio azpiegitura digitaletan eta osasun arloko zerbitzu publikoen digitalizazioan, eta, neurri handi batean, ongi kokatuta dago gaitasun digitaletan.

Zein dira enpresen eraldaketa digitalen erronka nagusiak?

Enpresen eraldaketa digitalen dimentsioan, Euskal Autonomia Erkidegoak garapen ona du eta EB-27ko batezbestekoaren gainetik dago funtsezko zenbait adierazletan, horien artean, datuen analitikaren erabileran, enpresa txiki eta ertainen intentsitate digitaletan, eta enpresa txiki eta ertainetako merkataritza elektronikoan.

Hala ere, erronkak agerikoak dira teknologia digital aurreratuak bere egiteari dagokionez. Hain zuzen ere, esparru horretan ikusten dira erreferentziazko estatu kideekiko alderik handienak, bereziki hodeiko konputazio zerbitzuak bere egitean eta adimen artifizialean. Hodeiko konputazio zerbitzuetan, Euskal Autonomia Erkidegoa Europako batezbestekoaren azpitik dago; adimen artifizialean, berriz, Europako batezbestekoaren inguruan.

Zer erakusten du euskal enpresetan adimen artifizialaren erabilerari eta IKTen segurtasunari buruzko azterketak?

Adimen artifizialari buruzko analisi espezifikoak enpresetan haren erabilera heterogeneoa dela erakusten du, honako faktore hauek baldintzatuta: (i) enpresa tamaina, (ii) sektore espezializazioa eta (iii) enpresek adimen artifiziala ezartzeko dituzten gaitasunak.

2024ko datuek erakusten dute pixka bat jaitsi dela adimen artifiziala erabiltzen duten enpresen proportzioa, nagusiki tamaina txikiagoko enpresen artean izandako beherakadak eraginda. Hala ere, badirudi azken urteko bilakaera hori doikuntza puntual baten ondorio dela, adimen artifiziala bere egiteak hazteko potentzial esanguratsua baitu. Aldi berean, emaitzek agerian uzten dute beharrezkoa dela enpresa txiki eta ertainen gaitasunak indartzen jarraitzea, horrelako teknologiak bere egitea errazteko.

Adimen artifizialaren erabilera batez ere ekoizpen prozesuak eta prozesu operatiboak optimizatzean kontzentratzen dela ikusten da, eta hori bat dator lurraldearen industria profilararekin. Aitzitik, enpresa

jardueraren funtzio laguntzaileetan aplikatzen denean (esate baterako, administrazioan, merkataritza funtzioetan edo kudeaketa arloan), garapen maila txikiagoa du, EB-27arekin alderatuta.

Bestalde, IKTen segurtasunaren analisiak ere egoera ona erakusten du, enpresetan segurtasun neurrien ezarpen maila handia baita eta emaitzak, Europako batezbestekoak baino hobeak. Hala ere, hobetzeko eremuak identifikatu dira, honako esparru hauetan: (i) prebentzio eta detekzio neurriak, horien artean, arriskuen ebaluazio eta kudeaketa sistematikoa eta (ii) enpresek beren langileekiko dituzten segurtasun betebeharrak kontratu bidez formalizatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan eraldaketa digital lehiakorra lortzeko gomendioak

Oro har, txostenak Euskal Autonomia Erkidegoko digitalizazioaren ibilbidea positiboa izan dela berresten du, azpiegitura eta gaitasun digitaletako indargune sendoetan oinarrituta. Hala ere, erronkak teknologia aurreratuak bere egitearekin eta talentu espezializatua garatzearekin lotuta daude. Emaitza horietatik abiatuta, txostenak honako gomendio hauek egiten ditu:

1. Enpresetan eraldaketa digital aurreratuak bultzatzea

Enpresen gaitasun teknologikoa indartzea, teknologia aurreratuak bere egitea bizkortuz, bereziki adimen artifiziala, hodeiko konputazioa eta datuen analitika, enpresa txiki eta ertainei arreta berezia eskainita. Horretarako, funtsezkoa da teknologia horietarako sarbidea errazteaz gainera, enpresetan teknologia horiek eraginkortasunez erabiltzeko eta negozio prozesuetan integratzeko behar diren barne gaitasunak indartzea.

2. Talentu digital espezializatua garatzea

Profil digital kualifikatuak prestatzeko, erakartzeko eta atxikitzeko estrategia integratuak bultzatzea, eraldaketa digitaleko prozesuari eusteko eta prozesu horren abiadura bizkortzeko funtsezko elementuetako bat baita.

3. Ekosistema digital integratuak sendotzea

Datuen azpiegiturak, gaitasun teknologikoak eta jakintza transferitzeko mekanismoak integratuko dituzten lankidetza ereduetan aurrerapausoak egitea, lankidetza publiko-pribatua indartuz eta enpresa txiki eta ertainei soluzio digital aurreratuak sarbidea erraztuz. Ikuspegi horrek sistemen arteko elkarrengarritasuna hobetzen eta teknologia digitalak modu homogeneoagoan bereganatzen lagunduko du, eraldaketa digitaleko Europako jardunbide egokienekin bat.



INSTITUTO VASCO
DE COMPETITIVIDAD
FUNDACIÓN DEUSTO

www.orquestra.deusto.es